

## ADMINISTRAZIOAREN AURREIKUSPEN EZAK BITARTEKO LANGILEEN PREKARIZAZIOAN SAKONTZEN DU

---

*2018-02-27ko bilera Lakuan*

**Gai-ordena: Bilboko Lehen Auzialdiko 15 zki.ko eta Lan arloko 11 zki.ko epaitegien plantila organikoa sortzea.**

Justzia Administrazioko Zuzendaritzak deitu gintuen sektoreko mahaira helburu bakar batekin: “erakunde sindikalak entzutea” dioen tramite legala betetzea. Horixe baita azken urteotako ohitura, negoziazio eza.

Administrazioak planteatzen duena hauxe da. Lanpostuak zerbitzu-eginkizunen bitartez bete nahi dituzte eta esleitu gabe geratuko diren plazak bitarteko langilez hornituko dituzte. Hala eta guztiz ere, zuzendaritzaren aurreikuspen faltagatik, litekeena da astirik ez izatea Lan Arloko 11 zk.ko epaitegiko lanpostuak langile titularrez hornitzea martxoaren 30rako horrexegatik zerbitzu eginkizunetara ateratzen dituztenean lanpostutik botako dituzten errefortzuak izendatuko dituzte. Badirudi, Lehen Auzialdiko 15 zk.ko Epaitegiari dagokienez, ahal izango da jokatu denboraz eta planifikatutakoaren arabera: plazak zuzenean zerbitzu eginkizunetara eskaini, aurretik errefortzuzko izendapenik egin gabe.

Isabel Gabriel Zuzendariaren hitzetan, ez die eman denborarik lanpostu berriak “bakantetzat” formalizatzeko eta horren erruz ezin ditzakete eskaini zerbitzu eginkizunetara. Hori dela-eta bitarteko langileak errefortzu moduan kontratatuko dituzte beharrezkoa den aldirako (hilabetez, bi...)

Lan arloko 11 zk.ko epaitegiko lanpostuak hornitzeko modu hori erabat gaitzesi zuen LABek errefortzuzko langileak lan ezegonkortasunean kokatzen dituelako, interesatzen zaionean lanpostu horiek zerbitzu eginkizunetara eskaintzeko. Bitarteko langileak erabili eta botatzeko material gisa maneiatzeari ez diogu emango gure babesa. Justizia Administrazioko Zuzendaritzaren jokabidea salatu genuen bitarteko langileen lan-baldintzak aintzat ez hartzean, egun dauden prekarietatean areago sakontzera behartzen baititu.

Amorragarria da gero sailak bere betebeharrak ondo ez egitearen ondorioz -antolakuntza eskasa edo aurreikuspen faltagatik- langileek sufritu behar izatea noiz berrituko dizkieten jakiterik ez dagoen errefortzuzko kontratuekin. Hori bai, lansari arrakalaren kontrako mezu

ugari eta diskurtso politikoki zuzenak nonahiko erakundeen hitzetan baina, praktikan ez kontziliaziorik, ez egonkortasunik enpleguan, ez...

Hortaz, LABek exijitu zion zuzendaritzari plaza horiek hasiera-hasieratik langile titularrez hornitzeko denbora eta era bilatzeko eta ez erabiltzeko errefortzuzko langileak hain era bidegabean. Bitarteko langileak horrela izendatzearen aurka gaude baldin eta handik gutxira lanpostutik bota ostean plaza horiek -zerbitzu eginkizunen bidez- langile titularrez hornitu nahi badituzte. Jokaera horrek bai bitarteko langileak eta bai titularrak kaltetuko lituzke. Batzuk are egoera prekariagora behartzen dituztelako; eta besteak lanpostua ez dietelako ematen behar den unean eta, horrezaz gain, honako arrisku hau ere kontuan hartzekoa delako: dagokion bitarteko langileak errekurritu lezake bota duten plaza. errefortzu moduan hornitu arren, administrazioaren aurreikuspen ezak gaizki kudeatutako bakantea izanik. Isabel Gabriel zuzendariak arinkeri handiz adierazi zuen ahal zuela eta egin egingo zuela.

Justizia Administrazioako Zuzendaritzak nahi duena lotsagarria da: bitarteko langileak nahi duenerako izan eta errefortzu figura bere intereserako erabili. LABek ohartarazi zion zuzendariari, gai honen inguruan dagoen Europako araudia dela-eta, oso litekeena da bitarteko langileak lanpostutik bota ezin izatea. Areago beste langile bat izendatzeko bada lanpostu berean zerbitzu eginkizunen bitartez. Behin izendaturik, bitarteko langileak lanpostu horietatik botatzeko modu juridiko bakarra, gure ustez, lekualdatze lehiaketa da.

Izan ere, zuzendaritzak nahi duena betez gero, plaza horietatik botako lituzkeenak animatuko genituzke errekurritzera.

Aurreko justizia sail bien garaian, LAB izan ezik beste sindikatu guztiek administrazioa presatu zuten bitarteko langileak izendatzeko eta zesatzeko araua alda zezan. Lortu nahi zutena hauxe zen: titularrak ez badu lanpostu bat betetzen, bere plaza izan arren- aurretik egondako bitarteko langilea geratzea. Hori guztia bitarteko langileei enpleguan egonkortasun handiagoa eskaintze aldera. LABen horren aurka geunden eta gaude, horrek askotan lan-poltsan goian dauden langileak kaltetzetzen dituelako. Hala ere, sailak baietz esan zuen azkenean. Hortaz, gure iritziz, kontraesankorra bada oso orduko sindikatu berberak gaur enplegua prekarizatzearen aurka ez egotea.

Bestalde, zuzendariari aurpegiratu zion LABek hilabeteak eta hilabeteak daramatzagula itxaroten hainbat gai jorratzeko bilerak noiz deituko, hala nola: lizentziak eta baimenak nola kudeatu; guardien inguruko eztabaida orokorra; emakumeen aurkako indarkeria epaitegietako guardia estaliak; irtenbidea behar duten kontu askotxo... Gauzak horrela, epeak exigitu genituen eta, esan gabe doa, Administrazioak gaiak alde aurretik ondo aztertuta agertzea bilerara. Alegia, konpromisorik gabeko beste bilera gehiago ez dadila izan. Behin eta berriro eskatzearen ondorioz, ezarri zuen zuzendariak martxoaren hirugarren astean biltzeko. Deialdia ikusi arte ez gara fidatuko.

201/03/13